



2018 MAI. 02

SARRERA	IRTEERA
zk. 352964	zk.

Ignacio Maria Arriola Lopez
Eusko Jaurlaritza
Ingurumen, Lurralde plangintza eta Etxebizitza saila
Donostia-San Sebastian 1
01010 Vitoria-Gasteiz

EAE-KO LURRALDE ANTOLAMENDUAREN GIDALERROEI EGINDAKO PROPOSAMENA

Jaun agurgarria,

LAGen berrikuspenerako behin behineko dokumentuari ohar, proposamen eta alternatibak bidaltzeko epea zabalik dela aprobeztatzuz, Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatetik geure ekarpenak berretsi nahi ditugu. Gutun honekin batera bidaltzen dizuegu horretarako dokumentua.

Aurretiaz eskerrak emanaz,

Aulestin, 2018ko apirilaren 23an



Josu Labaka Zuriarrain
UEMAko lehendakaria

**EAEko Lurraldea Antolatzeko Gidalerroak berritzeko
Aurrerapen txostenaren euskara ikuspegia hobetzeko
ekarpena**



Aholkulariak:	
 EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN KONTSEILUA	Unai Fernandez de Betoño <i>EHUko Arkitektura saila eta UEUko kidea</i> Iñigo Urrutia Libarona <i>EHUko Administrazio zuzenbidea, konstituzio zuzenbidea eta zuzenbidearen filosofia saila</i>

1.- Sarrera

EAEko Lurraldea Antolatzeko Gidalerroen (LAG) Berrikusetak gutxi gorabehera 3 urte iraungo du, eta prozedura 2015eko uztailan hasi zen (36/2015 Ebazpena). Aldi berean egingo dira LAGak berritzeko administrazio-izapidetzearen muga nagusiak (Abiatzea, Aurreratzea, Hasierako Onestea eta Behin Betiko Onestea) eta Euskal Hiria Kongresua. Euskal Hiria Kongresua 2015ean, hasiera eman zitzaion parte hartzeko prozesuari Oinarrizko Dokumentua aurkeztuz; Euskal Hiria Kongresua 2016an, Aurrerapena aurkeztu zen; Euskal Hiria Kongresua 2017an, Hasierako Onespina aurkeztu zen; eta, Euskal Hiria Kongresua 2018an, Behin Betiko Onespina aurkeztea aurreikusten da.

Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) LAGak berritzeko Aurrerapen txostenari hasierako onespina emateko fasean, ekarpenak aurkeztu zizkion dokumentuari Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluaren eta UPV/EHUko bi aditu aholkulariren¹ lankidetzaz, euskara-ikuspegia ganoraz txertatzeko asmoz.

Ondotik, 2018ko martxoaren 7an igorri zuen UEMARA Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde plangintza eta Etxebizitza sailburuak egindako ekarpenei buruzko erantzuna. Han jasotako erantzunarekin ez du bat egiten Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak, eta gainera, gure ustez, 2/2016 udal legearekin berarekin hainbat kontraesan agertzen dira. Horiek horrela, alegazio fase honetan ere aurrez egindako ekarpenak berretsi nahi ditugu.

2.- Aurrekariak

EAEko 1997ko LAGetan (28/1997 Dekretua) lurralde-antolakuntzaren eta euskararen arteko harremana argi utzi zen, 17. atalean ("Ondare Kulturalaren Antolaketa"):

(...) pisu espezifiko handiagoarekin, hizkuntzaren gaia aipatu beharra dago. Euskal idiosinkrasiaren funtsezko gotorlekua da. Kasu honetan, euskararen presentziak heterogeneotasun handia azaltzen du lurraldean zehar: inguru batzuetan ia ez da azaltzen eta beste batzuetan hizkuntza nagusia da. Inolako zalantzarik gabe, lurraldearen antolamenduko elementu batzuek, telekomunikazioen edo garraio-sareen garapenak esate baterako, funtsezko garrantzia izango dute hizkuntzaren eta ezagutzen transmisio-prozesuetan, inguru desberdinetako pertsonen artean sortzen dituzten erlazioen ondorioz. Lurraldearen antolamenduak, arazo honetan funtsezko elementua edo behi-betikoa ez izan arren, ezaugarri hauek kontuan hartuta ihardun beharko du, proposatzen diren iharduketek horien gainean izan ditzaketen eragina aintzat hartuz beti.

1 Unai Fernández de Betoño (UPV/EHUko Arkitektura Saila eta UEUko kidea) eta Iñigo Urrutia (UPV/EHUko Administrazio Zuzenbidea, Konstituzio Zuzenbidea eta Zuzenbidearen Filosofia Saila).

2012ko martxoan Eusko Jaurlaritzak V. Inkesta Soziolinguistikoaren EAerako dosierra argitaratu zuen². Bertan, azken hamarkadan euskararen arnagune geografikoek jazotako galera egiaztatu zen, mugikortasunarekin eta lurraldea antolatzeko ereduarekin estuki lotuta:

Azken 20 urteotako bilakaera aztertuz gero, euskararen erabilerak gora egin du apurka-apurka EAEn (batez beste 4 puntu). Igoera hori hiru lurraldeetan eta lehenengo hiru gune soziolinguistikoetan gertatu da. Laugarren gune soziolinguistikoan, aldiz, euskararen erabilerak behera egin du (7,5 puntu 1991tik hona). Beherakada horren atzean azken urteotan hirigune erdaldunagoetatik gune euskaldunetara bizitzera joan direnen hizkuntza-ezaugarriak daude.

Arazo soziolinguistiko-urbanistiko hori aztertzeko, gizarteratzeko eta konponbideak bilatzen saiatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiak (GFA), Kontseiluak, UEMAk eta UEUK (UPV/EHUreren babesarekin) “Lurraldea eta Hizkuntza” lehen kongresua antolatu zuten 2014ko urtarrilean³. Bertan, lurralde-antolakuntzako eta hirigintzako plan eta proiektuen eragin linguistikoa ebaluatzeko beharra azaldu eta aldarrikatu zen. 2014ko ekainean MOOC-ikastaro birtual bat ere antolatu zuten UEUK eta Asmoz Fundazioak (GFaren eta UEMaren laguntzarekin), eta ondorioa berdina izan zen: eragin linguistikoaren prebentzioan aritzeko beharra.

Hain zuzen ere, ildo horretan onetsi zen 2014ko abenduan Gipuzkoako Euskara Planaren atal bat. Planak Foru Aldundiaren ekimenez egindako plan eta proiektuen eragin linguistikoa ebaluatzeko derrigortasuna ezarri baitzuen, 17. artikuluko 3 puntuetan:

1. Gipuzkoako Foru Aldundiak bere politika publikoen eragin linguistikoa aldeztu aurretik ebaluatzeko bitartekoak ezarriko ditu.
2. Ebaluazio horren printzipio nagusia izango da euskara osasuntsu dagoen guneetan eta egoeretan euskararen erabileraren aurkako eraginik ez sortzea, eta, sortzekotan, zuzenketa neurri egokiez laguntzea.
3. Eragin linguistikoaren aldeztu aurreko ebaluazioa beharko da departamentuen politikaren adierazle diren arau, proiektu, programa, azterketa eta ekimen guztietan, Diputatuen Kontseiluak onartu aurretik.

2015ean “Lurraldea eta Hizkuntza” bigarren kongresua⁴ eta bigarren MOOC-ikastaroa garatu ziren, non UEMAk eta GFAk landutako Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa (ELE) izeneko tresna prebentiboa aurkeztu baitzen (Tolosaldeko Lurralde Plan Partzialean aplikatuta), bai eta neurri zuzentzaileetan sakontzeko beharra aldarrikatu ere.

2 <http://tinyurl.com/hnjxscg> (kontsulta: 2016/6/28).

3 Hitzaldi guztiak, hemen: <http://www.ueu.eus/ikasi/jardunaldi-ikastaroa/628> (kontsulta: 2016/6/28).

4 Hitzaldi guztiak, hemen: <http://www.ueu.eus/ikasi/jardunaldi-ikastaroa/751> (kontsulta: 2016/6/28).

Zentzu horretan, 2016ko apirilean ELE aplikatzeko beharra jaso zen EAEko 2/2016 Udal Lege berrian. “Lurraldea eta Hizkuntza” egitasmoan bildutako ezagutzak baliatuz, GFAk eta UEMAk ekarpenak egin genituen eta 2/2016 Legeko 7.7 artikulua lurralde-antolakuntzako eta hirigintzako plan eta proiektuen eragin linguistikoa ebaluatzeko derrigortasuna ezarri du, baita horien ondoriozko kalte soziolinguistikoak txikitzeo neurri zuzentzaileen ezarpena eskatu ere:

Udaletako egoera soziolinguistikoan eragina izan dezaketen proiektu edo plangintzak onesteko prozeduran, ekimen horiek euskararen erabileraren normalizazioari dagokionez izan lezaketen inpaktua ebaluatuko da, eta ebaluazio horren emaitzen arabera egoki irizten zaizkien neurriak proposatuko dira.

2016an ere antolatu da “Lurraldea eta Hizkuntza” hirugarren kongresua⁵, non, beste bi ELE aurkezteaz gain (Orioko Hiri Antolakuntzarako Plan Orokorrena eta Baztango Aroztegia Udalerri Gaiendiko Plan Sektorialarena), neurri zuzentzaileen gaineko hausnarketa sakonagoa egin baita, euskara-ikuspegia LAGetan txertatzeko ohar batzuk ere luzatuz.

Azkenik, 2016 urtean ere, Eragin Linguistikoaren Ebaluazioan unibertsitate-graduondoko berezko aditu-titulua antolatu du EHUK, Arkitektura eta Administrazio Zuzenbidea, Konstituzio Zuzenbidea eta Zuzenbidearen Filosofia Sailen bidez, Unai Fernández de Betoño (UEU, EHU) irakaslearen gidaritzapean, UEUK sustatuta eta Kontseiluaren, UEMAREN eta Ekogunearen lankidetzaz. Batzorde akademikoa osatu dute Unai Fernández de Betoñok, Itsaso Olaizolak (UEU, Ekogunea) eta Iñigo Urrutiak (EHU).

Graduondokoaren helburu nagusia da tresna teoriko eta praktikoak erdiestea, hautemateko, aztertzeo, eta eraldatzeko lurraldean zehar sakabanatutako eraikuntzen banaketa espazialak dakartzan ondorio soziolinguistikoak.

3.- Ekarpenna LAGak berritzeko Oinarrizko Dokumentuari.

2016ko irailean, Kontseiluak, hasieran aipatutako aholkulariek eta UEMAk ekarpenna egin genion Eusko Jaurlaritzak argitaratutako LAGen Berrikuspenerako Oinarrizko Dokumentuari, bertan biltzen diren ideiekin bateragarri eta osagarria, eta zortzi ataletan oinarrituta:

1. Arnasguneak eta haien eskualdeak: Euskararen arnasmune geografikoen kontzeptua gehiago garatzea LAG berrietan [soziolinguistikoki / geografikoki / espazio funtzionalak].
2. Garapen orekatua: Arnasguneen garapen orekatua oztopa dezaketen proiektuak mugatzeko aukera jasotzea, prebentzio-neurrien edo neurri zuzentzaileen bitartez.
3. Kultur Ondarea: Kultura-ondare immateriala kontsideratzea euskara.

5 Hitzaldi guztiak, hemen: <http://www.ueu.eus/ikasi/jardunaldi-ikastaroa/895> (kontsulta: 2016/6/28).

4. Garapen jasangarria: euskararen babesa eta biziberritzea garapen jasangarriaren inguruko gogoetan integratzea.
5. Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa: Hirigintza-plan eta -proiektuen balizko kalte linguistikoak aldeztu aurretik ebaluatzea, prebentzioa landuz, ingurumenaren alorrean egiten den moduan.
6. Egoitza-kuantifikazioa: Etxebizitza berrien eraikuntza edo egoitza-kuantifikazioa ongi doitzea tokiko berezko hizkuntza babesteko eta zabaltzeko.
7. Paisaia: Euskal Herriko paisaiaren zati kontsideratzea euskara, berau babestuz, antolatuz eta kudeatuz.
8. Euskararen Lurralde Plan Sektoriala: hizkuntza ardatz izango duen plan sektoriala zehaztea, euskararen eta lurraldearen gaineko politikak erkidego osoaren eskalan egokiro —zehatzago— pentsatzeko eta taxutzeko.

4.- Ekarpina Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak berritzeko Aurrerapen dokumentuari

UEMAk ekarpina egingo dio LAGak berritzeko Aurrerapen Dokumentuari, Kontseiluaren eta hasieran aipatutako aholkularien laguntzaz; hurrengo bederatzi ataletan oinarritzen da:

- 1. Arnasguneak (10.4 Euskara / 1. Gaiaren Egoera)

Arnasgune terminoaren lehen aipamen juridikoa egiten da Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legean, baina definizio zehatzik eman gabe. Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak berritzeko Aurrerapen dokumentuan ere euskararen arnasgune geografikoen kontzeptua aipatzen da, baina definizio hori gehiago garatu beharra dagoela iruditzen zaigu. Funtsezkoa iruditzen zaigu definizio horrek eduki hauek ere izatea:

Lehenik eta behin, **soziolinguistikoki**: LAGak berritzeko Aurrerapen dokumentuak hitz egiten du soilik Eusko Jaurlaritzaren lau gune soziolinguistikoez, zehaztuz arnasgunetzat jo daitezkeen udalerriak direla soilik 4. gune soziolinguistikoan daudenak (euskararen ezagutza-indizea % 80tik goragokoa).

Udalerri euskaldunak biltzen dituen mankomunitatea da UEMA eta honek udalerri euskalduntzat ditu Euskararen indizea %70etik gora duten udalerriak. Horietako batzuk euskararen arnasguneak dira eta beste batzuk ez, baina euskaldunen dentsitate mailagatik, eta gehienek duten kokalekua kontuan izanda, udalerri euskaldunak oro har izango dute garrantzia euskararen biziberritzeko prozesuan, eta horiek ere trataera berezia beharko dute gainerako politikei dagokienean.

Bigarrenik, **geografikoki** ere gehiago garatu beharra dago arnasgunearen kontzeptua. Bai eskala txikiago batetik bai ikuspegi handiago batetik. Txikitik, euskararen auzo-arnasguneak ere egon badirelako, baita udalerri euskaldunenetatik kanpo ere. Gertaera hori bereziki udalerri handi eta

jendetsuenetan jazo daiteke: euskara-datuak orotara indize bat eman dezakete, udalerri horiek 3. gune soziolinguistikoa sailkatzeko modukoak, baina, akaso, auzo batzuetako euskara-datuak askoz hobeak edukita. Esaterako, Donostiak % 54,89ko ezagutza-indizea du orotara (Gaindegia), baina bere mugen barnean dagoen Zubietako auzoak indize askoz hobeak du, euskaldunagoa izanik. Eta, eskala handitik, udal-ikuspegi hertsitik eskualdearen ikuspegi zabalagorako jauzia sakonki landu beharko litzateke. Arnasgune guztiak eskualde natural eta funtzional jakin batean (bioeskualdea zein Area Funtzional ofiziala) daudelako bilduta. Udalerri euskaldunenetako biztanleek handiagoak eta erdaldunagoak izan ohi diren Area Funtzionaletako hiriburuetan egiten baitituzte eguneroko jarduerak asko (lana, erosketa, aisialdia...), maila berezituagoko zerbitzu gehiago eskaintzen dituztelako. Hortaz, eskualde osoak hartu behar dira kontuan arnasguneetako dinamikak lantzerakoan.

Eta, azkenik, gogorarazi beharra dago euskararen arnasguneak espazio **funtzionalak** ere izan daitezkeela: eskolak, administrazio-eraikinak, hedabide batzuk, udalekuak eta haurren aisialdirako bestelako lekuak, enpresa batzuk... Arnasgune funtzional horiek hiri-mailakoak izan daitezke (LAGak berritzeko Aurrerapen dokumentuak aipatzen du “hiriguneetan arnasgune funtzionalak garatu beharra, euskararen erabilera hainbat jarduerari lotuta: jolas-, hezkuntza-, kultura- zein asistentzia-jarduerari lotuta adibidez”, eta 4. helburu gisa jaso da: “Euskara hiri-izaerako eremuetan erabil dadin laguntzeko jardunak ahalbidetzea, arnasgune funtzionalen garapena bultzatuz.”) eta, kasu askotan, are lurralde-mailakoak ere⁶. Hortaz, Arlo sozioekonomikoarekin lotura handia edukitzeaz gain, hirigintzarekin eta lurralde-antolakuntzarekin harreman estua duen kontzeptu funtzional hori ere gehiago garatu beharko litzateke, LAG berrietan euskararen bizi-espazioak osotasunez garatuko badira.

Hala ere, argi utzi beharko litzateke ez dela sustatuko hizkuntza-eskubideen zonifikaziorik, inondik inora, **eskubideak ez direlako zonifikatzen**. LAGak EAEko herritar guztien hizkuntza-eskubideak lurralde-antolakuntzaren eta hirigintzaren alorretik ere babesteko eta suspertzeko tresna izan beharko lirateke.

- 2. Udalerri euskaldunak

LAGak berritzeko Aurrerapen dokumentuak jasotzen duen bezala, 3. eremu soziolinguistikoa (% 50 eta % 80ko euskararen ezagutza-indizeen arteko herriak) euskaldunen hazkundera erregistratu da, azken urteetan. Hirugarren gune soziolinguistikoko udalerriak ere oso kontuan hartzeko lurguneak dira, arnasgune bilakatzeko **potentzial** handia dutelako (VI. Inkesta

6 Andoingo Martin Ugalde Kultur Parkea, adibidez, lurralde-mailako euskararen arnasgune funtzional argia litzateke, euskalgintzako enpresa garrantzitsu ugariaren egoitza den heinean: Berria, Kontseilua, Gaindegia, Aztiker, Bertsozale, Emun, Hekimen, Soziolinguistika Klusterra, Euskal Herrian Euskaraz...

Soziolinguistikoaren arabera, 3. gune soziolinguistikoan, % 52,4k erabiltzen dute euskara erdara beste edo gehiago).

Hain zuzen ere, potentzialtasun hori aurreikusiz, udalerri horietako bizimodu euskalduna zaindu eta areago indartzeko ere eratu zen Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea, 1991n. Mankomunitateak bere baitan biltzen ditu % 70eko euskararen ezagutza-indizea dute udalerriak, euskararen lurgune zabala bilduz.

Horregatik, udalerri euskaldunak zaintzea, indartzea eta ugaritzea ere kontuan hartu beharko lituzke LAGak berritzeko Aurrerapen dokumentuak, hirugarren helburuan eta bigarren gidalerroan jasoz, arnaguneen aipamenarekin batera.

- 3. Prebentzio linguistikoa (10.4 Euskara / 2. Helburuak; 3. Lurralde-gidalerroak)

Kezka-iturri dira arnaguneetako hizkuntza-dinamika hauskorak dislokatu ditzaketen hiri-garapen eta azpiegiturak. Arestian aipatu bezala, lurralde-antolakuntzako eta hirigintzako plan eta proiektuen eragin linguistikoa ebaluatzeko derrigortasuna ezarri die udalei EAEko Toki Entitateen 2/2016 Legeko 7.7 artikulua, eta baita horien ondoriozko kalte soziolinguistikoak txikitzeo neurri zuzentzaileen ezarpena eskatu ere.

Laugarren atalean azaldu dugunez, hirigintza garapenaren eragin linguistiko kaltegarriak **prebentzio**-neurrien edo neurri zuzentzaileen bidez mugatzea proposatu genuen idazki honen egileok, LAGak berritzeko Oinarrizko dokumentuari egindako ekarpenetan. Baina, gure ustez, ez dira behar besteko zehaztasunez jaso, LAGak berritzeko Aurrerapen dokumentuaren gidalerroetan, 2/2016 Tokiko Entitateen Legeak ezarritako irizpideak eta idazki honen egileok luzatutako eskaria. Honela jaso da asmo hori: “Arnaguneak babestea, harremanetarako guneak ahalbidetzea, sare presentzialak indartzea eta eskusibotasuneko eta lurralde-konpartimentazioko guneak saihestea”. Ekarpen honen idazleonek ustez, zehaztu beharko litzateke, “3. Lurralde-gidalerroak” atalean ez bada, gutxienez “1. Gaiaren egoera” atalean, 2/2016 Legeak zehaztutakoari jarraiki, **eragin linguistikoaren ebaluazioak** direla arnaguneak eta udalerriak, oro har, beren egoera soziolinguistikoan eragin kaltegarria izan dezaketen lurralde antolaketako eta hirigintzako proiektuetatik babesteko tresna.

Prebentzioa landuz ingurumenaren alorrean egiten den moduan, hizkuntzaren eremuan ere lurralde antolaketako eta hirigintzako plan eta proiektuen balizko kalte linguistikoak aldeztu aurretik ebaluatu beharko lirateke, tokiko berezko hizkuntza babestea eta zabaltzea helburu. Bereziki lurralde mailako azpiegitura eta garapen urbanistiko ertain eta handien eragin linguistikoak aztertu beharko lirateke, eskualdeak fragmentatu eta ekosistema sozialak errotik aldatzen dituzten heinean. Horregatik, lurralde antolaketako eta hirigintzako proiektuak edo plangintzak onesteko prozeduretan, arnaguneen garapen orekatua oztoka dezaketen eta udalerrietako egoera soziolinguistikoan eragin kaltegarriak izan dezaketen ebaluatu behar da, eta ebaluazio horren emaitzen arabera egoki irizten zaizkien neurriak proposatu behar dira, horrela behar izanez gero. Proiektuen kasuan, proiektuaren izaerari, tamainari, denbora-epeei, lekukotzeari edo hizkuntza-irizpideei dagozkien neurriak hartu beharko lirateke, proiektua

gauzatu ondorengo kaltea arintzera bideratutako neurri, ekimen edo proiektu osagarriak ere aurreikusiz. Azkenik, muturreko egoeretarako 0-alternatiba drastikoa ere —proiektua bertan behera uztea, behar izanez gero— ez litzateke baztertuko.

UEMAk eta Gipuzkoako Foru Aldundiak dagoeneko eragin linguistikoa ebaluatzeko tresna bat garatu dute, ELE izenekoa. ELEk hirigintza-plan eta -proiektuen eragin linguistikoa ahalik eta modu objektiboenean neurtzen ditu, gaika antolatutako (mugikortasuna, ekonomia, azpiegiturak, soziokultura eta demolinguistika) galdetegi zorrotz baten bidez. Hiru eskala ezberdineko planetan aplikatu da jada: Tolosaldeko Lurralde Plan Partzialean, Orioko Hiri Antolakuntzarako Plan Orokorrean, eta Baztango Aroztegia Udalerri Gaiendiko Plan Sektorialean. Ondo aztertze moduko esperientziak dira, hizkuntzalarien, soziologo eta arkitektoen artean ondutakoak.

LAG berriek ELEren aplikazio sistematikoa ezarri beharko lukete, bai eta —aurreikusitako kaltearen arabera— neurri zuzentzaileak proposatzeko eta gauzatzeko lurralde-orientabideak ezarri ere.

- 4. Garapen orekatua (10.4 Euskara / 3. Lurralde-gidalerroak)

Hala ere, oso kontuan izan behar da helburua ez dela arnagune-udalerririk eta -eskualdeen argazki estatiko edo finko bat lortzea. Gehiegi urbanizatzea oso kaltegarri izan daitekeen moduan, inolako garapenik gabe uzteak ere haien heriotza ekar lezakeelako. Horregatik, euskal hiztunentzako aldaketa soziolinguistikoko kaltegarritik gabeko arnaguneen **garapen orekatu eta endogenoa**⁷ izan beharko litzateke azken helburua. Alegia, haiek babestiaz gain, haiek zabaltzeko ere jomuga duen epe motz, ertain eta luzerako estrategia (urbanistiko zein soziolinguistikoko) argi bat planifikatzea eta martxan jartzea.

Horregatik, 2. gidalerroan gehitu beharko zen, arnaguneen **garapen orekatu eta endogenoa ahalbidetzea**.

- 5. Kultur Ondarea (7.2 PAISAIA, KULTURA- ETA NATURA-ONDAREA, ETA BALIABIDE TURISTIKOAK)

Landa-habitata eta Gobernantza ataletan ere aipatzen bada era, bereziki 7.2 PAISAIA, KULTURA- ETA NATURA-ONDAREA, ETA BALIABIDE TURISTIKOAK atalean jaso beharko ziren ondoko zehaztapenak ere: Eusko Jaurlaritzak iragan 2016ko apirilaren 19an onetsi zuela Euskal Ondarearen Lege aurreproiektua, 7/1990 Legea eguneratzea asmo duena. Berritasun nagusia da kultur ondare immaterialaren agerpena, UNESCOren 2003ko Ondare Immaterialaren

7 Lurralde-garapen endogenoaren kontzeptuaz gehiago jakiteko, ikus Vázquez Barquero, A. (2007): “Desarrollo endógeno. Teorías y políticas de desarrollo territorial”, *Investigaciones Regionales*, 11, 183-210.

Konbentzioan azaldutako ideiei jarraikiz⁸. Lege-aurreproiektuaren 11. artikuluan zehaztu bezala, ondare immateriala babesteko kategorien artean lehena litzateke kulturaren ahozko tradizioek eta adierazpideek osatutakoa, "hizkuntza barne". Onesteko bidean den lege berri horrek, beraz, kultur ondarearen ikuspegitik emango dio babes legala euskarari, EAEko kultur ondasun immaterialen inbentarioan sartuko omen duelako.

Lege autonomiko hori onetsi bitartean —datorren legegintzaldian, adostasun politikoa erdietsiz gero—, edonola ere, Espainiako Estatu mailako 10/2015 Kultur Ondare Immaterialaren Babeserako Legea ere EAEn jadanik aplikatzekoa da. Haren 2. artikuluan dagoeneko «ahozko tradizio eta adierazpideak, hizkuntz modalitateak eta berezitasunak barne» kultur ondare immaterialaren zatitzat jotzen dira. Eta, zehazkiago, 4. artikuluan, ondasun immaterialei loturiko espazio fisikoen balizko babesa hirigintzaren eta lurralde-antolakuntzaren alorretan espresuki kokatzen da:

1. Babestu beharreko ondasun immaterialei loturiko leku, espazio, ibilbide eta euskarriak errespetatu eta kontserbatu daitezela begiratu dute administrazio publikoek.

Horretarako, kultur ondare immateriala babesteko neurrien artean ondare horrekin lotura estua duten ondasun higigarri eta higiezinak babesteko neurri berezi eta espezifikoak sartu ahal izango dira, baldin eta babes horrek ez badu eragozten ondasun horien iraunkortasuna, eboluzioa eta erabilera ohikoa, eta hargatik galarazi gabe Espainiako Ondare Historikoari buruzko 16/1985 Legean eta autonomia-erkidegoetako legedian ondasun higigarri eta higiezin horiek babesteko ezartzen diren neurri bereziak.

2. Kultur adierazpide immaterialak gauzatzearekin loturiko ondasun higigarriek eta espazioek kasuan kasuko administrazio eskudunen babes-neurriak jaso ahal izateko, hirigintzaren eta lurralde-antolamenduaren alorreko legediaren arabera.

Babes-neurri horiek ez dituzte inoiz murriztuko ondasun horien gainean eskubideen jabeek edo titularrek dituzten ahalak. Murrizketa horiek gertatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da Espainiako Ondare Historikoari buruzko 16/1985 Legean eta autonomia-erkidegoetako legedian ezarritako prozedurei jarraitzea.

- 6. Garapen iasangarria (11. Gobernantza / 11.4. JARRAIPENA, EBALUAZIO ETA ADIERAZLEAK / IV. LURRALDE ETA HIRIGINTZA JASANGARRITASUNEKO ADIERAZLEAK // 11.5 LAGk aplikatzeko arauak

Arestian egindako garapen orekatuari eta kultur ondare immaterialari buruzko oharrekin batera, beharrezko da, halaber —LAGak berritzeko Aurrera Dokumentuan askotan aipatzen den heinean—, jasangarritasun kontzeptuaren —eta, ondorioz, garapen jasangarriaren— inguruko

8 Konbentzioko testua, hemen: <http://www.unesco.org/culture/ich/es/convenci%C3%B3n> (kontsulta: 2016/8/5).

gogoeta zabalago bat. Izan ere, kontzeptuaren hasieran (1987ko Brundtland txostena) garapen jasangarria hiru zutabetan bermatzen zela esan bazen ere —ekonomia, ingurumena eta gizartea—, jada aipatutako UNESCOren 2003ko Ondare Immaterialaren Konbentzio garrantzitsuaz geroztik laugarren zutabe bat ere hartzen da kontuan: kultura. Bibliografia ugari dago gaiaren inguruan⁹, eta baita UNESCOren ebazpen eta adierazpen mordo bat ere, hurrengo bi esaldietan laburbil daitezkeenak: «*Culture is who we are and what shapes our identity. No development can be sustainable without including culture*»¹⁰. Alegia, Euskal Herrian (EAE barne) ez da garapen iraunkorrik edo jasangarririk jazoko, euskara babesten eta biziberritzen ez bada. Eta ideia horrek Eusko Jaurlaritzaren zenbait sailetakoa politiketan txertatu beharko litzateke, Ingurumen eta Lurralde Politika saila barne, «IV. Ingurumen Esparru Programa 2020» delakoaren zio nagusia haxe baita¹¹:

Nazioz gaindiko Erakundeek, Europako Parlamentuak, Europako Kontseiluak eta Europako Batzordeak xedatutakoari jarraiki, Garapen Iraunkorrek Administrazio Publiko ororen helburu eta xede izan behar du.

Horregatik proposatzen dugu garapen jasangarriaren ikuspegi linguistiko-kulturala txertatzea LURRALDE ETA HIRIGINTZA JASANGARRITASUNEKO ADIERAZLEen artean eta baita LAGk aplikatzeko arauen Eraldaketarako Ardatzen artean ere (11. artikulua).

- 7. Egoitza-kuantifikazioa

Etxebizitza-eraikuntzaren gaiari berebiziko arreta eskaini beharko litzaioke. Udalerrri euskaldunenek 2001 eta 2011 artean pairatu duten euskaldun-proportzioaren beherakada latzak zerikusi handia baitu 1998 eta 2008 urteen artean Euskal Herri osoak eta bereziki EAEk bizi izan duen «adreiluaren burbuila» delako fenomenoarekin. Gaindegiak 2016an aurkeztutako azterketak, 126 udalerri euskaldunetako datu demolinguistikoak eta sozio-ekonomikoak uztartuz (orotara 234 adierazle udalerri bakoitzean), ez du zalantza-izpirik uzten zentzu horretan: «bi faktore ageri dira euskararen indize orokorraren bilakaeraren atzean: 2001-2011 aldian

9 Ikus Dessein, J. et al, ed. (2015): Culture in, for and as Sustainable Development. Conclusions from the COST Action IS1007 "Investigating Cultural Sustainability", University of Jyväskylä, Finlandia. [ISBN 978-951-39-6177-0].

10 «Kultura da gu nor garen eta gure nortasunari forma ematen diona. Ez dago garapen jasangarririk kultura kontuan hartu gabe»: <http://en.unesco.org/themes/culture-sustainable-development> (kontsulta: 2016/8/17).

11 http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.eus/r48-rplancoo/eu/contenidos/plan_programa_proyecto/xleg_plangub_06/eu_plang_06/plang_06.html (kontsulta: 2016/6/1).

gertatutako etxebizitza-parkearen hazkundera eta garai berean bizi izandako biztanle-kopuruaren hazkundera»¹².

Euskararen lurgune bereziak babesteko eta zabaltzeko ezinbestekoa da, hortaz, haientzat araubide espezifikoa bat osatzea¹³, haien eskualde natural eta funtzional osoa kontuan hartuko duena, eta etxebizitza-hazkunderaren gaiari arreta berezia eskainiko diona. Horregatik, LAG berrietako egoitza-kuantifikazioak hori hartu beharko luke kontuan oso. 4/2016 Dekretuaren bidez berriki aldatu den egoitza-kuantifikazioak, esaterako, harrotze-faktore handiena esleitzen die udalerri txikienei¹⁴, haien etxebizitza-merkatu murriztagoa «zurrunagoa» delakoan, baina kontuan izan gabe euskararen arnagune geografiko asko —gehienak— hain zuzen ere udalerri txikiak direla¹⁵. Hortaz, bizitegi-ahalmena kalkulatzeko LAGetako formulako¹⁶ faktoreak tokiko berezko hizkuntza babesteko eta zabaltzeko helburuaren begiradatik ondo doitu beharko lirateke.

- 8. Euskararen Lurralde Plan Sektoriala (I. Berrikuspenaren Esparrua / IX. LURRALDE PLAN SEKTORIALAK)

1997ko LAGetan 20 LPS aurreikusi zirela aipatzen du Aurrerapen dokumentuak. Ekarpen honen idazle on ustez, **Euskararen Lurralde Plan Sektorial** bat ere garatu beharko litzateke berandu baino lehen, euskararen eta lurraldearen gaineko politikak erkidego osoaren eskalan egokiro —zehatzago— pentsatzeko eta taxutzeko. Horregatik, LAGak berritzeko Aurrerapen dokumentuak asmo hori ere jaso beharko luke.

12 Ikus Imanol Esnaola Gaindegia koordintatzailearen “Euskararen gaitasunaren gainbehera udalerri euskaldunetan: eraldaketa faktoreak eta tipologiak” laburpen-artikuluak, eta “Gaitasunaren bilakaera udalerri euskaldunetan, non-zer, faktoreen itsasoan” esandako azterketa osoaren aurkezpena: <http://www.gaindegia.eus/eu/Gaindegia-albisteak-euskara-gaitasunak-gainbehera-udalerri-euskaldunetan-eraldaketa-faktoreak-eta-tipologiak>; <https://www.youtube.com/watch?v=oCkGayHYigY> (kontsulta: 2016/8/18).

13 2/2006 Lurzoruaren Legea ere berritze-fasean sartu da 2016 honetan Eusko Legebiltzarrean, eta, datorren legegintzaldian azkenik aldatzen bada, hemen aldarrikatzen den euskararen eta hirigintzaren arteko lotura bertan ere eduki beharko luke isla egokia. Besteak beste, Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa sustatzaileak berak egin —ordaindu— behar duela ezar liteke bertan.

14 Harrotze-faktorea egoitza-kuantifikazioa puzten edo handitzen duen indize bat da. Errealitatean hirigintza-plan batzuk hainbat arrazoiengatik bertan behera gelditu daitezkeenez, zehazki beharrezkoak diren etxebizitzak benetan egikari daitezzen aurretik gehiago kuantifikatu eta planifikatu behar omen dira.

15 Adibidez, Busturialdean, non udalerri guztiak 4. gune soziolinguistikoan edo oso gertu dauden, udalerri guztiek dituzte 1.000 biztanle baino gutxiago, Bermeo, Mundaka, Gernika eta Muxika kenduta.

16 Bizitegi-ahalmena = (Bizitegi-beharra x Harrotze-faktorea) – Etxebizitza hutsak.

Euskal hiztunen kopuru osoaz gain, berebiziko garrantzia dauka euskaldunen dentsitateak, hots, hiztun kopuruak kilometro koadroko. Ideia horretan oinarritzen da arnagune geografikoen edo arnaguneen teoria. Begirada zertxobait altxatzean, gainera, berehala ikusten da arnaguneek multzoak ere osatzen dituztela haien artean, alegia, dentsitatearen kontzeptua ez dela soilik udalerrri mailakoa; eskualde mailakoa ere badela, arestian azaldu bezala. Eta, bereziki eskala handiago horretan, dentsitatea bezain garrantzitsua da trinkotasuna, hots, arnaguneen jarraitutasuna, lurgune euskaldunen artean *continuum* bat osatzea.

Esandako euskaldunen dentsitate eta trinkotasuna lurralde-antolakuntzako eta hirigintzako plangintzatik ere espazialki babestu, antolatu eta kudeatu beharra daukagu, gure hizkuntza benetan suspertuko badugu. LAG berriek euskararen lurraldea babesteko eta zabaltzeko helburua lortzeko eta berezitasun geografikoetan hobeto sakontzeko, **Euskararen Lurralde Plan Sektorial** bat ere garatu beharko litzateke berandu baino lehen, euskararen eta lurraldearen gaineko politikak erkidego osoaren eskalan egokiro —zehatzago— pentsatzeko eta taxutzeko.

LAG berriak nahikoak ez balira, hortaz, zehatzagoa izango litzatekeen Euskararen Lurralde Plan Sektorial horren hiru helburu nagusiak hurrengoak lirateke:

- 1.- Euskararen arnagune geografikoak eta funtzionalak babesteko, antolatzeko eta kudeatzeko irizpide eta arau urbanistikoak ezartzea.
- 2.- Euskararen arnagune geografikoak eta funtzionalak elkarren artean egokiro lotzeko neurri urbanistikoak (babesaren aldetik, hedapenarenetik...) ezartzea.
- 3.- Euskararen arnagune geografiko eta funtzional gehiago erdiesteko estrategia urbanistikoak ezartzea.

Alegia, arnaguneetan beretan zentratzea, arnaguneen arteko loturetan, eta arnaguneen hedapenetan. Helburu orokor batekin, beti ere: euskal hiztunen habitat hauskorren fragmentazioa eta higadura espaziala saihestea, bai eta hura zabaltzeko bideak irekitzea ere.

Euskararen Lurralde Plan Sektorialak udalerrri eta hiri-finkamendu euskaldunen tamaina, forma, dentsitatea eta jarraitutasuna sakonki aztertu beharko litzuke. Lege edo gidalerro orokor batzuetan egokiro ikertzeko eta zehazteko zail samarrak diren kontuak, espazio fisiko zehatzarekin oso lotuta dauden heinean. Banaketa espazialaren garrantzia azaltzeko, gainera, ingurumenaren alorreko kontzeptuak erabil litezke; zehazkiago, paisaiaren ekologia deitutako jakintza-arlotik eratorritakoak¹⁷: *patch* edo guneak, *buffer* edo arintze-zonak, fragmentazioa, korridoreak, ertzak eta mugak, mosaikoak... Kontzeptu zehatzegiak, beharbada, LAG berrietan ganoraz garatuak izateko, eta, ondorioz, Euskararen Lurralde Plan Sektorial sakonago baten

17 Dramstad, W. et al (1996): Landscape Ecology Principles in Landscape Architecture and Land-Use Planning, Island Press, Harvard. [ISBN 1-55963-514-2].

beharra azaltzen dutenak, diziplinarteko lanketa sakonago bat —soziolinguistiko eta urbanistikoa, bereziki— egin dadin.

Euskararen bilakaera-prozesuan badiarelako lurralde-formarekin lotutako ezaugarri espazialak. Azken hamarkadotan, hain zuzen ere, lurralde-nekrosi moduko zatiketa bat jazotzen ari da euskal lurgunean, itzulgarria izan daitekeena baldin eta tokiko (udalerrri zein eskualde mailako) sare sozioekonomiko eta kulturala indartzeko eta zabaltzeko ekimen antolatu eta planifikatuak aurrera eramaten badira. Lurralde-antolakuntza egokiak ekosistema linguistikoak ere elkarren artean lotzeko eta indartzeko estrategiak bideratzen lagun dezakeelako.

Euskara-politika ausart bezain egingarriak aurrera eramateaz gain lurralde-politikak ere planifikatu, gauzatu eta kudeatu beharko ditugu euskara eta euskararen substratua babestu eta zabalduko badugu.

8. ZUZENKETAK

- “10.4 Euskara” atalean bi alditan aipatzen da “euskararen koofizialtasuna”. Aipamen hori zuzentzea eskatzen dugu ez baita zehatza. Euskara bera bere kabuz da hizkuntza ofiziala EAEn, ez du beste hizkuntza baten laguntzarik behar ofiziala izateko, balio juridiko osokoa da.
- “10.4 Euskara” ataleko euskarazko eta gaztelaniazko bertsioetako gidalerro proposamen hauek ez datoz bat:

“EAEren errealitate soziolinguistikoari lurralde- eta hirigintza-antolamenduko tresnak ekartzea, hizkuntza-ikuspegiari zeregin integratzailea emanaz” // “Incorporar la realidad sociolingüística de la CAPV en los instrumentos de ordenación territorial y urbanística, otorgando a la perspectiva lingüística un papel integrador”

- Ohartarazi behar dugu LAG berritzeko Aurrerapen dokumentuan gaizki jaso dela Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 7. artikuluko 7. zenbakiaren aipamena. Honela beharko luke¹⁸: “Udaletako egoera...”.

Euskal Herrian, 2018ko apirilaren 20an